

3/2017 akta

OSATEK, SA SOZETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN AKTA, 2017KO UZTAILAREN 14KOA.

Presidenteak deituta, Administrazio-kontseilua osatu da Gorbeia aretoan, Lakua II ko 4. Solairuan, Donostia/San Sebastian kalea, 1, Vitoria-Gasteizen, 2017ko uztailaren 14an, 12:30ean. Jarraian adierazita datoz bertaratu direnen izenak eta gai-zerrenda:

BERTARATUTAKOAK:

PRESIDENTEA

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna

KIDEAK

M^a Jesús Mugica Anduaga andrea

Andoni Arcelay Salazar jauna

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna

Lide Amilibia Bergaretxe andrea

Fernando Aguirre De Miguel jauna

Bertaratzea ezinezkoa izan zaiola adierazi du Susana López Altuna andreak, Osatekeko Administrazio-Kontseiluari egindako idatzi baten bidez, eta bere ordezkaritza eta botoa Ignacio J. Berraondo Zabalegui jaunaren eskuetan uzten duela esan du.

Bertaratzea ezinezkoa izan zaiola adierazi du ere Daniel Salazar Irusta jaunak.

Hitza bai, baina botorik gabe bertaratu da bilerara Josu Xabier Llano Hernaiz jauna, zuzendari gerentea.

Kontseiluko idazkaria ez dagoenez, Fernando Aguirre De Miguel jaunak jardun du idazkari lanetan, kiderik gazteena delako.

GAI-ZERRENDA:

1. Aurreko bilerako akta onestea

Irakurri ondoren aurreko bilerako akta onartzen da.

2. 2017ko lehenengo lauhilekoaren jarduera asistentziala

2017ko lehenengo lauhilekoaren jarduera asistentziala aurkeztu du zuzendari gerenteak.

Erresonantzia Magnetikoari dagokionez, aurkeztutako dokumentazioaren ondorioz, arlorik azpimarragarrienak aipatzen dira: 2016an egin ziren lan-txanda berak mantendu dira orain, nahiz eta apur bat jaitsi den egindako miaketa-kopurua. Lehenengo lauhilekoaren amaieran itxaron-zerrendan 19.575 paziente daude, 2016ko garai bereko kopuruarekin alderatuta % 21 egin du gora. Gorakada hau guztira dagoen itxaro-zerrendaren batez besteko berdintsua da, egun 76,31 egunekoa da.

Zuzendari gerenteak azaldu du zer neurri hartzen ari diren egoera hau arintzeko, nagusiki aldi baterako kontratazio berriak egitearen bidetik doa, urtean zehar asteburuetan eta jai egunetan lan-txanda gehiago egin ahal izateko.

Lehenengo lauhilekoan, Telelaguntza jarduerak % 10eko estaldura dauka 65 urtetik gorako herritarrengan, eta lehenengo lauhilekoaren bukaeran 45.005 pertsonak jaso dute telelaguntza zerbitzuaren arreta. Pertsona ardatz duen eredu horretan lanean jarraitzen da, osasun-sistemeekin koordinazioan, udalaren etxeko arreta zerbitzuarekin koordinazioan, esan behar da telelaguntzaren erakustaldi-zentroa abian jarri dela proba pilotu gisa eta 100 etxeren digitalizazioa ere bai.

Pazienteak etxean monitorizatzeari dagokionez, datozen bi urteetarako eskaintzen zena Air Liquid-i esleitu diote. Maiatzaren 23an hasi ziren Osakidetzako informazio-sistemeekin batera informatikako integrazio-lanak.

3. Lehenengo lauhilekoaren aurrekontuak betearaztearen egoera

Zuzendari gerenteak lehenengo lauhilekoaren diru-kontuen eta aurrekontuak betearaztearen berri eman du. Azterketaren arlorik esanguratsuenaren Errresonantzia Magnetikoaren jarduerarekin lotutako pertsonalaren gastu-igoerari dagokio. Igoera hori izan da jarduerak gora egin duelako eta pertsonalaren gastuak asko handitu direlako (atzerapenak, % 5 sententzia...)

Urte amaierarako aurreikusten dena aurrekontuan jasotakoaren gainetik dago, nagusiki behin-behineko pertsonalaren kontratazioa asko handitu delako, eskaeraren gorakadari aurre egin ahal izateko.

Zuzendari gerenteak tarifak aldatzea proposatu du, izan ere, 2011n jaitsi egin ziren eta iraunkor daude geroztik.

Zuzendari gerenteari cash-flowari buruzko eta Sozietatearen erreseben-egoerari buruzko informazio gehiago eskatu zaio. Zuzendari Gerenteak dio hurrengo Administrazio Kontseilurako informazio zehatzagoa emango dela.

4. EM makina berriak instalatzeko proiektuak

Baztertu da 2017an San Eloy Ospitalean EM instalatzeko proiektua, horretarako dagoen eraikineko obren atzerapenarengatik.

Aurrera doa AUOko Kanpo-kontsultetako Eraikinean instalatzekoa den makina erosteko espedientearen prestaketa. Espedientearen lizitazio-epeak aztertuta, espero da makina abenduaren lehenengo hamabostaldian irekitzea.

Aurrekonturik ez dagoelako Donostia Ospitalean 4. makina instalatzeko asmoa gerorako utzi da.

Inbertsioetarako geldikina, AUOko makinaren instalazioari dagokionaren deskontua eginda, 500.000 euro ingurukoa da, alde batera utzita beste alternatiba batzuk, baimena eman zaio zuzendari gerenteari aurrekontu hori inbertitzeko makina bat eguneratu edo unitateak moldatzeko, Osatekek aurreikusitako lehentasunak kontuan hartuta.

5. Plantilla-beharrak eta lan-poltsaren egoera.

Zuzendari gerenteak berriro ere aipatzen du batetik, Osatekeko plantilla estrukturala eguneratzeko beharra, azken urteetan egiten ari den jarduera errealerara moldatzeko eta, bestetik EM ekipo berriak instalatzeko aurreikuspena.

Iritzi-truke baten ondoren, Kontseiluak adierazi du joan den urtean egindako eskaerari berriz ekiteko lanak bultzatzea nahi dela, eta eguneratutakoan onartu arte behar diren izapideak egin, egoki baderitzote.

Zuzendari gerenteak 2016an lan-poltsa irekien egoerari buruzko informazioa eman die.

6. Telelaguntza eta Telemonitorizazioko mandatua

Zuzendari gerentearen ustez zailtasunak daude gaur egungo baldintzetan Telelaguntzako mandatuarekin jarraitzeko 2018ko urrian esleipena bukatzen denean. Kontratazio publikoko araudi berriak eragozpen argia adierazten du gaur egungo baldintzetan mandatuarekin jarraitzeko.

Zuzendari gerenteak azaldu du zer aukera egon litezkeen Osatekek Telelaguntzaren kudeaketa egiteko. Kontseiluak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin batera lan bat egiteko beharra ikusten du urtea bukatu baino lehen erabakitzeko gaur egungo mandatuak eragiten dituen arazoan aurrean alternatibarik onena zein den.

Pazienteak etxean monitorizatzearen inguruan Osakidetzako mandatuari dagokionez Kontseiluaren iritzia da beharrezkoak diren izapideak egiteari ekin behar zaiola, jarduera hau Osakidetzako Asistentziako Zuzendaritzaren esku uzteko.

7. Zuzendari gerenteari Biodonostia Institutuan ordezkari ematea.

Zuzendari gerenteak dio Biodonostia Institutuak -Osatek ere bertako partaidea da- eskatu duela Osatekeko Administrazio Kontseiluak ordezkari bat aukeratzeko asanblea orokorretan, Kontseiluaren bileretan eta hala eskatzen duten jardueretan egoteko.

Administrazio Kontseiluak erabaki du Zuzendari gerentea bera izan dadila Osatekeko ordezkaria Biodonostia Institutuan, Osatek deituta dagoen bileretan egon dadin.

8. Laguntzaileen poltsako gora jotzeko errekurtsioak

Laguntzaileen behin betiko poltsarako hautagaiak direnen gora jotzeko errekurtsioak aztertu dira:

1- 22750020F NAN: Errekurtsioa, behin-behineko zerrendari buruz puntuazio-aldaketagatik. Baietsia

2- 14592136Q NAN: Errekurtsioa, behin betiko zerrendako puntuazioaren desadostasunagatik. Ezetsia.

3- 79124660Z NAN: Errekurtsioa, behin-behineko zerrendari buruz behin betiko zerrendan euskararen puntuazioa aldatzeagatik. Baietsia

4- 16100349G NAN: Errekurtsioa, euskara ez baloratzeagatik. Epez kanpo aurkeztutako errekurtsioa. Ezetsia